



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **UDALBATZAK 2018KO OTSAILAREN 26AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
Itziar Arratibel Imaz  
Jesus Peñagarikano Labaka  
Jon Mikel Iglesias Otegui  
Irati Ozaita Azpiroz  
Arkaitz Fraile Quijera  
Maria Iciar Jauregui Huarte  
Eleuterio Sanchez Garcia

### **BITARTEKO IDAZKARI :**

*Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Ibarran, **bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeiei eta seian** arratsaldeko seiak eta hobeita hamar zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- Jose Agustin arrieta Eguiguren zinegotziaren (EAJ) kargu hartzea**
- 2.- Adierazpen Instituzionala: Martxoak 8, emakumeok planto lemapean**
- 3.- Adierazpen Instituzionala: Saharar Errepublika lemapean**

2018/02/26



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **LEHENA:**

### **1. JOSE AGUSTIN ARRIETA EGUIGUREN ZINEGOTZIAREN (EAJ) KARGU HARTZEA**

“Udal honetako zinegotzi eta EAJ-PNV alderdiko kide zen Cristina Goya 2018ko urtarrilaren 3an hil zen.

Korporazioak, urtarrilaren 3an jakinaren gainean egonik, hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zion otsailaren 2an zerrendaren hurrengo hautagaiaren aldeko egiaztagutuna egiteko.

Hauteskunde Batzorde Zentralaren egiaztagutuna, hutsik dagoen kargua betetzeko, JOSE AGUSTIN ARRIETA EGUIGUREN jn. hautagaiaren aldekoa, otsailaren 19an jaso zen.

Interesdunari jakinarazi zitzaien 2018ko otsailaren 19an Hauteskunde Batzorde Zentralaren egiaztagutuna udal honetako zinegotzi kargua har dezan.

Zinegotziak apirilaren 2ko 7/85 legeak toki Araubideari buruzkoak 75.5 art.an jasotako aitorpena egin du eta aitortu du halaber ez dagoela Hauteskunde araubide orokorrari buruzko lege organikoak edo horrekin bat datorren bestelakoak aurreikusitako inolako bateraezintasun kasuan. Zinegotziak bestelako aitorpenik ez duenez egin, ikusi da ez dagoela beren izendapenaren ondorengo bateraezintasun kausaren batek eraginda, ekainaren 19ko 5/1986 legeak 202 eta 203 art.etan eta aplikagarri den beste legedi batek dioenaren arabera.

Ikusi da idazkariaren proposamen-txostena, otsailaren 22koa, eta ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde Erregimen Orokorrekoak, 196 art.an xedaturikoaren arabera,

Horretarako, eta indarrean dagoen legedia betez,

Idazkariak honako galdera egiten dio JOSE AGUSTIN ARRIETA EGUIGUREN jn.ari:

2018/02/26



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Udal idazkariak irakurri du ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoak hauteskunde araubide orokorrari buruzkoak 108.8 art.an dioena, zinegotzi hautatuen kargu hartzeari buruz.

Zin egitea apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak, kargu edo funtzio publikoen kargu hartze formulak arautzen dituenak, aurrikusitako formula erabiliz egiten da.

Ondoren Korporazioko idazkariak zinegotziaru formula irakurtzen dio:

”Zure kontzientzia eta ohoreagatik, Ibarra udaleko zinegotzi karguaren zereginak beteko dituzula zin egiten duzu, erregeari leial izanik eta konstituzioa eta Euskal Herriko autonomia estatutua errespetatu eta errespetaraziz”.

Zinegotziaren erantzuna:

- Bai, Legeak aginduta zin egiten dut

Zinegotzi kargu-hartzearen ondoren, bilkurara bertaratuko da JOSE AGUSTIN ARRIETA EGUIGUREN jn.a

## **BIGARRENA:**

### **2. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: MARTXOAK 8, EMAKUMEOK PLANTO LEMAPEAN**

#### EMAKUMEOK\* PLANTO

2018ko martxoaren 8ko Greba Feministaren aldeko adierazpen instituzionala

Eta emakumeek\* planto egingo balute? Eta egiten duten guztia egingo ez balute? Aurtengo martxoaren 8an ikusiko dugu.

Iaz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek\* nazioarteko emakumeen\* grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen\* kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean. Aurten, 2018an, “Emakumeok\* planto. Nosotras paramos” lelopean egingo da.

Aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak bat egin nahi du EMAKUMEOK\* PLANTO aldarriarekin, grebaren helburua da emakumeen\* lanak gure jendartearen duen inpaktua ikusaraztea eta lan horiek aintzat har daitezela eskatzea. Bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, zaintzarekin lotutako lanak, hau da, feminizatutako ogibideak (hazkuntza, heziketa, biziraupenerako nekazaritza, mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta, elkartasun sareak, euskarri afektiboa...) eraiki dugun gizartearen oinarri eta zutabeak erori egingo liriateke. Emakumeen\* ekarpenik gabe jendartearen gelditu egingo litzateke.

2018/02/26



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Emakumeen\* lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du, etxeetan ekoizitako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela. Nagusiki emakumeek\* egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen dira, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtuz.

Feminizatutako lan gehienak prekarioak eta ikusezinak dira, neurri handi batean emakumeek\* doan eginak, eta nagusiki migratutakoek. Etxeko langileen %87a atzeritarrak dira, %46 etxe barneko langileak dira, eta herenak baino gehiagok ez dute lan kontraturik. Egoera honek emakumeen\* burujabetza ekonomikoa oztopatzen jarraitzen du, bigarren mailako soldatak eta lan baldintza kaskarren bitartez. Horrek guztiak beren bizitza pertsonala, soziala eta politikoa bateratzea eragozten dien gurpil zoro batean sartzea bultzatzen diete.

Emakumeen\* eta gizonen denboraren erabilera desberdina traba handia da berdintasuna lortzeko garaian, zaintzarekin lotutako lan feminizatuek emakumeen\* aisia murriztua izatea dakartzate, gizonen aldean beren bizitza pertsonala (ikasketak, zaletasunak, karrera profesionalak...) garatzeko edo edozein jarduera sozial aurrera eramateko denbora eta zailtasunak areagotuz.

Lanaren kontzeptua birplanteatzeko beharra ikusten dugu. Bide horretan, jendarte mailako antolakuntza berri bat babesten dugu, hala nola, gizonen erantzunkidetasuna sustatuz. Horregatik, zaintza betebeharrei eta lan erreproduktiboari lotutako lanuztea babesten dugu. Emakumeek\* kalean, etxean, lantokian, eremu intimoan hartzen duten espazioa berriro moldatzea ezinbestekoa dela ikusten dugulako.

Egoera honetaz ohartuta Ibarako Udalak honako konpromezuak hartuko ditu:

- Emakumeen greba orokorarekin bat egingo duela, Udalbiltza honi informazioa emanaz eta hura garatzeko bideak jarritz
- Baliabide material eta instituzional guztiak jarriko dituela Ibarren antolatzen diren elkarretaratze eta jardueren berri emateko.
- Udaletxeko balkoian bandera feminista jarriko duela, emakumeen grebaren aldeko ikur gisa.
- Konpromezua hartuko duela politika feminista garatuz hitzaldi, ikastaro eta tailerren bitartez sentsibilizazio eta trebakuntza programak garatzen, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko.
- Udal politikan, programa eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko estrategia transbersalak garatuko dituela.
- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Azkenik herritarrei dei egiten die modu aktiboan parte har dezaten, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

### ERABAKITZEN DU

**BAKARRA:** Onartzea xxxxxx aurkezten duen adierazpen instituzionala: Emakumeok Planto lemapean.

### **HIRUGARRENA:**

#### **3. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: SAHARAR ERREPUBLIKA LEMAPEAN**

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin IBARRAko udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki,saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar

2018/02/26



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenarekin bat etorritik, 2018ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera udaletxean zintzilikatzea adosten du.

8.-Aipatu den urteurrena dela eta, udalbatza honek bat egiten du 2018ko Otsailaren 27an arratsaldeko 18:30etan Tolosako Udaletxe aurrean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin deitutako elkarretaratzearekin, "Maroko Saharatik at Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lemapean.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**BAKARRA:** Onartzea Tolosaldea Sahararekin elkarrekin aurkezten duen adierazpen instituzionala: Saharar Errepublikaren lemapean

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hiru direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.